

Diktaketa-teknika berriak

Jessica J. Lockhart

Beti uste izan dut diktaketa denbora galtzeko modu bat zela, pentsatuz badaudela beste modu batzuk nahi diren helburuak azkarrago eta hobe-kiago lortzeko. Baina, Mario Rinvolveren hainbat artikulu irakurrita, ondo-riotu dut badela zenbait xede diktaketa-teknika berriago eta osatuagoen bitartez eskura daitekeena.

Hemen aztertuko ditudanak neronek neure klaseetan maila askotan frogatuta-koak dira. Oso emaitza onak izan dituzte, ikasleentzat atseginak gertatu dira eta ikaskuntzako estrategia eta xede desberdinetarako egoki daitezke. Horrek independentzia handia ematen du, zailtasunik duten ikasleei lagunduz.

1. teknika

Diktaketa-teknika hau edozein mailatako gutxienez lau ikasleko taldeetan erabil daiteke. Irakasleak berak aukera ditzake gaiak edo ikasleen esku utzi hautatzeko aukera.

Helburuak

Hiztegia eta egiturak pasibotik aktibora pasatu. Idatzizko koherentzia gara-tu. Ahozko jarotasuna gehitu. Norbere mailako idazkiak ondo menderatu.

Urratsak

1 Taldea bikoteka banatu. Bikote bakoitzak aukeratu duen edo eman zaion gaiari buruz elkarrizketa, ipuin edo erredakzio bat prestatuko du. Irakasle-ari hitzak galdetzea zilegi izango dute, baina ez ortografia, arlo horretan dituzten eskuarteko propioz baliatu behar bait dute, bikote bakoitzeko bi kideen ezagutzak konbinatuz. Testuek bostetik hamar lerrokoak behar dute izan, segun eta ikasgelan maila horretako zenbat ikasle dauden. Irakasleak erabakiko du ekintza honen lehen zatia prestatzeko zenbat denbora behar duten, bikoteak egin baino lehenago ondo zehaztuz.

2 Bikoteko batek (berek edo irakasleak aukeratuak) testua irakurriko die beste kideei. Esaldi edo proposizio bakoitza hirutan irakurriko dute, pun-tuazio-zeinuak barne, xede-hizkuntzan, jakina.

Taldeek testua kopian egingo dute, nahiz eta aurkitzen dituzten okerrak zuzen ditzaketen. Irakasleak, bere aldetik, testuak osorik jasoko ditu, dik-tatu diren bezala, ezer aldatu gabe. Diktaketa guztiak egun berean egin daitezke edo klasez klase banatu edo astez aste. Irakasleak erabakiko du talde bakoitzak behar duen trinkotasuna eta helburuen lehentasuna. (Hiz-

kuntzaren zein irudimenaren aldetik zailtasunik handienak izan ditzakeen bikotetik hasiera gomendatzen da frustrazioak ekiditeko. Era berean, garrantzi handiko jotzen dut bikoteak beren lanagatik edo lanaren alderdi-
ren batengatik goraiatzea, xede-hizkuntzan sortzen eta idazten jarraitzeko
motibatuz.)

3 Irakasleak testu bakoitza errepikatzen du diktatuaren ondoren eta dikta-
tuak izan diren era berean. (Ikasleek berek beren lanak irakurtzeak nahas-
menduak ekar ditzake. Zenbaitek hitzak, esaldiak edo testu-zatiak aldatze-
ko joera izango luke segurantziaz ezaizatik, bere ikaskideak nahastuz.)

4 Irakasle bakoitzak zuzenketak egiteko bere era izango du. Dena den, nik
ikasleak beren erroreak zuzendu eta birpasatzera behartzen dituen teknika
bat gomendatzen dut. Behin aurreko hiru pausuak burutu direnean, irakas-
leak ikasle guztien testuak bilduko ditu eta idatzeta zuzena izango zateke-
ena arbelean idatziko du. Irakurri egiten da gero idatzitakoa, sortzen diren
galderei erantzunez, eta gero ezabatu eta biharamuna arte bere horretan
uzten. Une honetan ez ditugu hasieran testua diktatu zuen bikotearen erro-
reak azaldu edo nabarmendu nahi. Gure xedea arbelean idatzi diren datuak
eskuratzea da, ikasleek idatziak direnez, aski ulerterrazak izango bait dira.
Arreta hutsegiteetan ez jartzearekin, lorpenerako oinarri bat ezartzeaz
gain, konplexuei ere itzuri egiten zaie, ikasleak laudatu egiten dira eta bes-
te hizkuntza batean komunikatzeko gauza direla sentierazten zaie. Ez zaie
zuzenketak kopiatzen utziko. Biharamunean, irakasleak berak entregatuko
ditu diktaketa-lanak, nahi duen edo egoki derizkion teknikaz zuzenduta.

2. teknika

Teknika hau ikasgelako adina ikaslerekin erabil daiteke. Irakasleak auke-
ratzen du zailtasun-maila, gaia eta, hein batean, erabiliko den hiztegia.

Helburuak

Hiztegia eta egiturak pasibotik aktibora pasatzea. Ahozko eta idatzizko
koherentzia garatzea. Ahozko jartasuna gehitzea.

Urratsak

Hizkuntza “monitorerik” gabe, hau da, ia berez ekoiztea. Ahozkoaren
dekodazioa.

1 Irakasleak istorio, ipuin ezagun, pasadizo, elkarrizketa edo narrazioren
baten hasierako esaldi bat edo esaldi-multzo bat diktatzen du. (Une horixe
da diktaketaren maila manipulatzekoa. Adibidez, medikuntzako hiztegia
landu nahi baldin bada, alegiazko kasu kliniko bat asma daiteke; etxe
barruko hiztegia jorrazteko, jauregi baten deskribapeneko lehenengo esal-
diak, etab.) Beharrezkoa da irakasleak inguruneari eta egoerari dagozkion
datuak ematea ikasleak bideratzeko.

2 Ikasle bakoitzak istorioarekin zerikusia duen esaldi bat botatzen du.
Esaldi koherentea eta zuzenakoa izango da. Nahi adina ikasleek har dezake
parte eta irakasleak nahi bezain diktaketa luzea egin. Narrazioa bukatu
nahi denean, azken ikasleari adieraziko zaio haren esaldia izango dela
azkenaren aurrekoa. Ikasleek beren irudimena erabiliko dute, nahiz eta
testuingurua kontrolatu samarra izango den; eta frustraziorik gabe erabili
ere, beren ekarpenek ez bait dute zertan luzeak izanik. Ez dute hiztegiari
buruzko galderarik egingo, beren ideiak beren hitzetan azaldu behar bait

dituzte. Gelako beste lagunek, kopiatzerakoan, aurki ditzaten erroreak zuzenduz kopiatuko dute.

3 Irakasleak testuko azken esaldiak diktatzen ditu, istorioari bukaera koherentea emanez. Ikasleen esaldi guztiak jasoak ditu, esan dituzten bezala justu-justu eta horrelaxe errepikatuko ditu ezer aldatu gabe. Horrela saihestuko dira nahasmenduak. Behin esaldiak errepikatuz gero, denboralditxo bat emango die ikasleei, beharrezko derizkiena errepasatu eta zuzentzeko.

4 1.teknikan esan den bezala edo derizkion eran egin dezake irakasleak zuzenketa.

Hona 2.teknikari jarraiki diktaketa hasteko zenbait esaldi:

a. Pedrok fantasmei beldurra zien, aita mozkorra bere delirium tremens-etan ikusten hasi zenez geroztik; horregatik ez zen gauza sorgindua omen zegoen etxe hartan sartzeko.

b. Institutrizak garrantzi handikoak ziren duela urte batzuk, familia aberatsek beren umeen heziketa horrelako emakume, normalean zahar, zimurtu eta lehorren eskuetan jartzen zutenean. Andere horiek beren estudio-geletan ematen zuten bizitza osoa, oraindik ere gogoan dudan eta beldurra ematen didan gure Bergara andereak bezala.

c. Basoan nago...baso hotz eta ilunean. Hemen ez dute txoriek kantatzen eta loreak ere ikaraz zabaltzen zaizkio eguzki zuriskari. Hemen ez dago animaliarik, zuhaitz handi nabar hauen babesean dabiltzan bi katakuxantxa beltz ezik.

Itzultzailea: Boni Urkizu